

**ESPARRU HITZARMENA OGASUN ETA
FINANTZA DEPARTAMENTUAREN ETA
ANOETAKO UDALAREN ARTEAN, ZERGA
INFORMAZIOA ELKARTRUKATZEKO**

**CONVENIOMARCO EN MATERIA DE
INTERCAMBIO DE INFORMACIÓN
TRIBUTARIA ENTRE EL DEPARTAMENTO
DE HACIENDA Y FINANZAS Y EL
AYUNTAMIENTO DE ANOETA**

ZIOEN AZALPENA

I.- Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat eta udalarentzat beharrezkoa da datu jakin batzuen lagapenerako sistema egonkor eta elkarrekikoa jartzea, beraiei esleitutako zereginak garatzeko eta eskumenak betetzeko.

II.- Zergadatuak dagokienez, trukeek Zergen Foru Arau Orokorra bete behar dute beti, eta, pertsona fisikoei dagokienez, baita datu pertsonalak babesteko legeria ere.

III.- Alde horretatik, zerga araudiak zergapekoei aitortzen die eskubidea dutela, legeak ezarritako baldintzetan, Zerga Administrazioak eskuratzen dituen datu, txosten edo aurrekariak isilpekoak izateko, eta Administrazioak ezin dizkie hirugarrenei utzi edo jakinarazi, legeetan aurreikusitako kasuetan izan ezik, eragindako zergadunak baimenduta zein baimendu gabe.

Zerga informazioa isilpean gordetzea zergapekoen intimitatea zaintze aldera ezartzen den eskubidea da, eta Ogasun eta Finantza Departamentuari dagokio eskubide hori babestea bere esku dituen baliabide juridiko eta material guztiak erabilita.

EXPOSICION DE MOTIVOS

I.- El desarrollo de las funciones y el ejercicio de las competencias encomendadas a los distintos ayuntamientos de Gipuzkoa y a la propia Diputación Foral requiere de un sistema estable y recíproco de intercambio de información entre los mismos.

II.- En lo referente a los datos tributarios, los intercambios tienen que cumplir, en todo caso, la Norma Foral General Tributaria y, en cuanto éstos se refieran a personas físicas, también la legislación protectora de datos de carácter personal.

III.- En este sentido, la normativa tributaria reconoce a las personas obligadas tributarias el derecho, en los términos legalmente previstos, al carácter reservado de los datos, informes o antecedentes obtenidos por la Administración tributaria, sin que puedan ser cedidos o comunicados a terceros, salvo en los supuestos previstos en las leyes, con o sin la autorización del propio contribuyente afectado.

El carácter reservado de la información tributaria es un derecho de las personas obligadas tributarias establecido para salvaguardar su intimidad y corresponde al Departamento de Hacienda y Finanzas velar por él, con todos los recursos jurídicos y materiales a su disposición.



ANOETAKO
UDALA

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de
Hacienda y Finanzas

IV.- Beste aldetik, urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoak, 141. artikuluan aurreikusten du administrazio publikoek elkarlanean jardun behar dutela. Artikulu horren 1.c) puntuak dio gainerako administrazioei behar duten informazioa emango dietela beraien eskumenak gauzatzeko beharrezkoa denean.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalen arteko lankidetzak horri esker, efizientzia administratiboa hobetu daiteke eta 39/2015 Legean ezarritako baldintzak bete daitezke, hala nola herritarrek administrazio jardulearen esku dagoen edo beste edozein administrazio egindako dokumentazioa ez aurkezteko duten eskubidea, besteak beste

Aipatzekoa da NISAE plataforma martxan jartzeak administrazio publikoen arteko zerga datuak trukatzeko lankidetzan izan zuen bultzada. Hala ere, plataforma honek ez ditu informazioa trukatzeko behar guztiak betetzen.

Esparru hitzarmen honen helburua da NISAE plataforma bidez egin ezin litezkeen informazio trukaketei estaldura ematea da. Horretarako, udal bakoitza esparru hitzarmen honi atxiki ahal izango zaio.

V.- Azaldutako guztiagatik, bi aldeek onartu egin dute izenpetzea honako lankidetzak hitzarmen hau, ondorengo klausulak dituen:

IV.- Por otro lado, la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, establece en su artículo 141.1.c) como deber de colaboración entre administraciones públicas el de facilitar a otras administraciones la información que precisen sobre la actividad que desarrollan en el ejercicio de sus propias competencias.

La colaboración entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y los ayuntamientos del Territorio Histórico de Gipuzkoa permite mejorar la eficiencia administrativa y cumplir con los requisitos establecidos en la Ley 39/2015, como el derecho de la ciudadanía a no aportar documentación que ya se encuentre en poder de la Administración actuante o haya sido elaborada por cualquier otra Administración, entre otros.

Conviene mencionar el impulso que supuso la puesta en marcha de la plataforma NISAE en la colaboración para el intercambio de datos tributarios entre administraciones públicas. No obstante, esta plataforma no cubre todas las necesidades de intercambios de información.

El presente convenio marco trata de dar cobertura a los intercambios de información que no puedan llevarse a cabo mediante la plataforma NISAE. Para ello, cada ayuntamiento se podrá adherir al presente convenio marco.

V.- Por todo lo expuesto, ambas partes acuerdan suscribir el presente convenio de colaboración que se registrará por las siguientes:

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Xedea.

Esparru hitzarmen honen xedea da zehaztea zer-nolako muga eta baldintza orokorrek arautuko duten Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta hori izenpetzen duten Gipuzkoako udalen arteko informazio truke aldebikoa eta beren informazio sistematarako elkarri emango dieten sarbidea.

BIGARRENA.- Informazio lagapenaren helburua eta datuen titularra den pertsonaren baimena.

Informazio igorpen edo lagapen oro behar bezala arrazoituta egongo da, aldi oro hartzaileari esleituak dituen zereginak betetzeak dakartzan beharrezanean erantzun behar dien neurrian, eta ezinbesteko izango du interesdunaren baimena jasotzea, legeak besterik esaten ez badu behintzat.

HIRUGARRENA.- Informazio lagapenaren edukia.

1.- Esparru hitzarmen honen babespean geratuko da administrazio hartzaileari egitea bidezkoa diren informazio lagapenak; betiere hitzarmenean azaldutako eskakizun guztiak betetzen badira, eta klausula eta printzipio guztiak aintzat hartzen badira.

2.- Udalak Ogasun eta Finantza Departamentuari informazioa ematea.

Apartatu honetan arautzen da zer-nolako informazioa emateko eskatuko dien Ogasun eta Finantza Departamentuak oro har Gipuzkoako lurralde historikoko udalei, berari esleitutako eginkizun batzuk, gipuzkoar zergadunekin zerikusia dutenak, betetzeko beharrezkoa duelako.

CLÁUSULAS

PRIMERA.- Objeto.

El presente convenio marco tiene por objeto establecer los términos y condiciones generales que han de regir el intercambio bilateral de información y el recíproco acceso a sistemas de información entre el Departamento de Hacienda y Finanzas y cada uno de los ayuntamientos de Gipuzkoa que lo suscriban.

SEGUNDA.- Finalidad del suministro de la información y autorización de la persona titular de los datos.

Todo suministro o intercambio de información se justificará en base a las necesidades derivadas del desempeño de las funciones que tiene atribuidas en cada momento el cesionario y requerirá del consentimiento inequívoco de la persona interesada salvo que la ley disponga otra cosa.

TERCERA.- Contenido del suministro de información.

1.- Este convenio marco amparará los suministros de información que proceda realizar a la administración cesionaria, siempre que dicho suministro cumpla con todos los requisitos y observe todas las cláusulas y principios en él contemplados.

2.- Suministros de información por parte del ayuntamiento al Departamento de Hacienda y Finanzas.

Se regulan en este apartado aquellos suministros de información que requiere el Departamento de Hacienda y Finanzas del conjunto de los ayuntamientos del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el ejercicio de las funciones que tiene encomendadas en relación con los contribuyentes gipuzcoanos.

Gaur egun, Ogasun eta Finantza Departamentuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalei buruz eskatzen duen informazioa NISAEren elkarreragingarritasun plataforman dago eskuragarri, baina esparru hitzarmenean hornidura berriak sartzeko aukera jasotzen da, etorkizunean sor daitezkeen beharrei begira.

3.- Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak honako informazio hau emango dio udalari:

- 1.eranskina: kontu korrante zenbakiak egiaztatzea.
- 2.eranskina (D6): Udalerrian dauden higiezinaren Ondare Eskualdaketei eta Egintza Juridiko Dokumentatuekin lotuta dauden operazioen datu eta notaritzako eskrituretara sarbidea, Hiri Lurren Balioaren Gehikuntzaren Gaineko Zerga eta beste udal zerga batzuk kudeatu eta biltze aldera.

LAUGARRENA.- Onartutako informazio lagapenetan aldaketak nola tramitatu eta nola gaineratu esparru hitzarmenean beste lagapen batzuk.

Onartutako eranskinetan aldaketak egiteko eta behin esparru hitzarmena onartutakoan beste informazio lagapen batzuk gaineratzeko, oro har, honako tramite hauek egin beharko dira:

Hartzailearen aldeko organo eskumendunak egindako eskabide arrazoitua, honako datuak bilduz:

- Helburua.
- Lagapena edo trukaketa eta entitate hartzailearen eskumena babesten dituen araudia.
- Datuen titularra den pertsonaren baimena beharrezkoa izatetik salbuesten duen araudia, hala balegokio.

Actualmente la información que requiere el Departamento de Hacienda y Finanzas del conjunto de los ayuntamientos del Territorio Histórico de Gipuzkoa está disponible en la plataforma de interoperabilidad de NISAE, pero se recoge la posibilidad de incorporar al convenio marco nuevos suministros, de cara a futuras necesidades que pudieran surgir.

3.- Suministros de información por parte del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa al ayuntamiento:

- Anexo 1: verificación de números de cuentas corrientes.
- Anexo 2 (D6): Acceso a datos y escrituras notariales de operaciones de Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados relativas a inmuebles radicados en el municipio, para la gestión y recaudación del Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana y otros tributos municipales.

CUARTA.-Tramitación de las modificaciones en los suministros aprobados y de las incorporaciones al convenio marco de nuevos suministros.

La modificación de anexos suscritos y la incorporación mediante anexos de nuevos suministros al convenio marco, una vez aprobado éste requerirá, en general, la siguiente tramitación:

Solicitud justificada del órgano competente de la cesionaria, que recogerá los siguientes datos:

- Finalidad
- Normativa que ampara el suministro o intercambio y la competencia de la entidad cesionaria.
- En su caso, normativa que exima de la necesidad de solicitar el consentimiento de la persona titular de los datos.

- Datuen titular diren pertsonen gaineko zehaztapena.
- Datuen titularraren baimena eskatzen den ala ez, eta horretarako erabilitako bitartekoak eta/edo formula.
- Laga beharreko datu zehatzak, eta adierazitako helbururako egokitasuna.
- Lagapen sistema eta horretarako erabilitako baliabide tekniko eta materialak.
- Maiztasuna eta ukitutako pertsonen edo entitateen kopurua.
- Emandako datuak gerora lagatzeko aurreikuspenak.
- Laga beharreko informaziorako sarbidea izateko edo administrazio lagatzaileari eskatzeko baimena duten pertsonak.
- Erabiltzaileen kudeaketaz eta emandako informazioaren segurtasunaz eta kontrolaz arduratzen den organoa.
- Auzi juridikoak, informatikoak edo beste auzi material batzuk argitzeko solaskideak.
- Oro har, egokitzat jotako beste edozein gorabehera.
- Determinación de las personas titulares de los datos.
- Si se solicita o no el consentimiento de la persona titular de los datos y el medio y/o fórmula utilizados.
- Los datos concretos a ceder y su adecuación a la finalidad indicada.
- El sistema de suministro y los medios técnicos y materiales empleados para ello.
- Periodicidad y número de personas o entidades afectadas.
- Previsión de ulteriores cesiones de los datos suministrados.
- Personas autorizadas para acceder a la información o para solicitar a la administración cedente la información suministrada.
- Órgano responsable de la gestión de usuarios y de la seguridad y del control de la información cedida.
- Interlocutores para cuestiones jurídicas, informáticas u otras cuestiones materiales.
- En general, cualquier otra circunstancia que se estime oportuna.

Aurkeztutako eskaera bidezkoa dela ziurtatu ondoren, aldaketa esparru hitzarmenean gaineratuko da, edo trukaketa berria eranskin gisa, eta administrazio bakoitzeko eskumendun organoek izenpetu beharko dute. Horrek ez luke ekarriko ondoko klausuletan adierazitakoaren galerarik.

BOSGARRENA.- Esparru hitzarmenari beste informazio lagapen batzuk gehitzea, eranskin eredu bidez, Ogasun eta Finantza Departamentuak hala eskatuta.

Ogasun eta Finantza Departamentuak bere funtzioak betetzeko beharrezkotzat jotzen badu oro har udalen eskutik informazio lagapen bat eskuratzea, horretarako eskaera aurkeztuko du aurreko klausulan adierazitakoari jarraituz, eta, hala badagokio, udal guztiei bidaliko die, formalizatzeko.

Comprobada la idoneidad de la solicitud presentada, en su caso se incorporará la modificación o el nuevo intercambio como Anexo, que será suscrito por los órganos competentes de cada administración. Todo ello sin perjuicio de lo señalado en las cláusulas siguientes.

QUINTA.- Incorporación al convenio marco de nuevos suministros por anexo-tipo, a favor del Departamento de Hacienda y Finanzas.

Si el Departamento de Hacienda y Finanzas necesita obtener un suministro por parte de la generalidad de ayuntamientos para el ejercicio de sus funciones, la solicitud se formalizará de acuerdo con lo señalado en la cláusula anterior y se remitirá a la totalidad de los ayuntamientos para su formalización.

SEIGARRENA.- Hitzarmenaren babespean egiteko informazio lagapen motak.

1.- Aldizkakotasunez edo denboran jarraitutasunez egitekoak diren informazio lagapenak.

Aldeetako batak zein besteak planteatuta, bestelako informazio lagapen baten premia sortzen bada, eranskin eruedetan katalogoan jasota ez dagoena, esparru hitzarmenean eranskin gisa gaineratzeko aukera egongo da, haren edukiaren zati bihurtuta eta haren arautze horren mende geratuta. Horretarako, eskaeraren eta baimenaren tramiteak bete beharko dira, esparru hitzarmeneko LAUGARREN klausulan adierazitakoari jarraituz.

2.-Informazio lagapen puntualak.

Informazio lagapena puntualizat hartzeko modukoa denean, hau da, espediente multzo zehatz batean sortutako beharizanari erantzutera bideratuta dagoelako, eskaera egiteko, hitzarmenaren LAUGARREN klausulan adierazitako datuak zehaztu behar dira, eta bete beharrekoak diren eskakizunak betetzen ote diren aztertu ondoren, entitate lagatzaileak eskaera onartuko du, hala badagokio, eta eskatutako informazioa igorriko dio hartzaileari edo sarbidea ahalbidetuko dio.

3.-Aldi baterako informazio lagapenak.

Iraupen mugatua duten informazio lagapenak ere esparru hitzarmenaren babespean onartzeko aukera egongo da. Horretarako, lehen aipatutako prozedura bete beharko da, eta aldi baterako formalizatu eta baimenduak izango dira.

ZAZPIGARRENA.- Esparru hitzarmeneko eranskin gisa onartutako informazio lagapenetan aldaketak egitea.

SEXTA.-Tipos de suministros al amparo del convenio marco.

1.- Suministros de información a efectuar periódicamente o de forma continuada en el tiempo.

Cuando se plantee por cualquiera de las partes una nueva necesidad de suministro de información que no esté incluido en los anexos-tipo, podrá incorporarse al convenio marco como anexo, pasando a formar parte de su contenido y quedando sujeto a su regulación, previa tramitación de la solicitud y de la autorización en los términos recogidos en la cláusula CUARTA del presente convenio marco.

2.-Suministros de información puntuales.

Cuando el suministro pueda considerarse puntual, esto es, destinado a responder a las necesidades derivadas de un conjunto de expedientes concreto, la solicitud se formulará indicando los datos relacionados en la cláusula CUARTA del presente convenio marco. Previo análisis del cumplimiento de los requisitos exigibles se autorizará, en su caso, por la entidad cedente, remitiendo o dando acceso a la información solicitada.

3.-Suministros de información temporales.

También podrán acordarse al amparo de este convenio marco, suministros de información limitados en el tiempo que, siguiendo el procedimiento ya indicado, se formalizarán y autorizarán con carácter temporal.

SÉPTIMA.- Modificaciones en los suministros aprobados por Anexo al convenio marco.

1.-Esparru hitzarmenean jada gehituta dagoen lagapen batean aldaketa esanguratsu bat egitea planteatu eta arrazoitzen bada, lagapen hori arautzen duen eranskina aldatu edo ordezkatzeko aukera egongo da. Horretarako, ebazpen edo erabaki berria hartuko dute, hala badagokio, organo eskumendunek, LAUGARREN klausulak ezartzen duenaren arabera.

Esparru hitzarmen honetan jasotakoari dagokionean, esanguratsu izaera izango dute informazio lagapenaren helburuari edota edukiari eragiten dioten aldaketek.

2.- Funtsezkoak ez diren aldaketak izatekotan, ez da beharrezkoa izango dena delako eranskinaren aldaketa edo ordezkapena formalizatzea.

ZORTZIGARRENA.- Informazioa emateko sistemak.

Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Gipuzkoako udalek informazioa emateko adostutako sistemak segurtasun eskema nazionalan (ENS) eta sistema elkarreragingarritasunaren eskeman (ENI) ezarritako beharkizunak beteko dituzte.

BEDERATZIGARRENA.-Printzipio aplikagarriak

Ondoko printzipio eta arauak izan behar ditu kontuan esparru hitzarmen honen babespean egindako informazio lagapen orok:

1.- Emandako datuak hartzailearen funtzio eta eskumenetara egokitzea.

2.- Informazioa garrantzitsua eta baliagarria izatea lagapenean bete nahi diren helburuetarako.

1.- Cuando se plantee y justifique cualquier modificación sustancial en relación con un suministro ya incorporado al convenio marco, el anexo que lo regula podrá ser modificado o sustituido mediante nueva resolución o acuerdo a adoptar, en su caso, por los órganos competentes, según se establece en la cláusula CUARTA.

A los efectos de lo dispuesto en el presente convenio marco, tendrán la consideración de sustanciales aquellas modificaciones que afecten a la finalidad y/o contenido del suministro.

2.- En el supuesto de modificaciones no sustanciales, no será necesario formalizar modificación o sustitución del anexo correspondiente.

OCTAVA.- Sistemas de suministro.

Los sistemas acordados entre el Departamento de Hacienda y Finanzas y los ayuntamientos de Gipuzkoa para los suministros de información cumplirán los requisitos establecidos por el Esquema Nacional de Seguridad (ENS) y el Esquema Nacional de Interoperabilidad (ENI).

NOVENA.- Principios aplicables.

Todo suministro de información que se realice al amparo del presente convenio marco se regirá por los siguientes principios y reglas:

1.- Adecuación de los datos suministrados a las funciones y competencias del cesionario.

2.- Relevancia y utilidad de la información para los fines que justifican el suministro.

3.- Emandako datuen eta lortu nahi diren helburuen artean proportzionaltasuna egotea.

4.- Datuak bidaltzeko eta horietan sartzeko bideak seguruak izatea.

5.- Eraginkortasuna lortu eta kostuak murriztea.

6.- Zorrotz lotzea datuen eskaera justifikatu eta arrazoitzen duten helburuei, zerga informazioa interesdunaren edo afektatuaren kalterako beste inoiz erabili gabe.

HAMARGARRENA.- Informazio lagapenaren eragina.

Esparru hitzarmen honen babespean egindako informazio lagapen orok izango dituen eragin bakarrak datuak eman diren xede eta helburutik eratorritakoak dira, eta hala zehaztuta egongo dira bakoitzari dagokion eranskinean edo emandako erabaki puntualetan.

Hein horretan, ez du sortuko ez eskubiderik, ez eskubide itxaropenik interesdunaren edo emandako informazioak ukitutako pertsonaren aldekorik, eta, era berean, ez du etengo informazio hori eskuratu den prozeduran nahasiak egon litezkeen eskubide edo betebeharren preskripzioa.

HAMAIKAGARRENA.- Informazioa sistema tradizionalen bidez bidaltzeko eta herritarrari ekarpen indibidualik egiteko ez eskatzeko konpromisoa.

1.- Esparru hitzarmen hau sinatzen duten entitateek uko egingo diote beren zereginak garatzeko beharrezkoa duten informazioa sistema tradizionalen bidez bidaltzeko eskatzeari, informazio hori izenpetutako esparru hitzarmenean jada formalizatu eta gaineratutako bideetatik lor dezaketen neurrian,

3.- Proporcionalidad entre los datos suministrados y los fines para los que se solicitan.

4.- Seguridad de los medios de transmisión y acceso empleados.

5.- Eficiencia y minimización de costes.

6.- Estricta afectación a los fines que justifican y para los que se solicitan los datos, sin que la información tributaria pueda utilizarse en perjuicio del interesado o afectado en ningún otro caso.

DÉCIMA.- Efectos del suministro de información.

Cada suministro de información que ampare el presente convenio marco no tendrá otros efectos que los derivados del objeto y la finalidad para los que los datos fueron suministrados, y que vendrán especificados en el correspondiente anexo o en la resolución puntual que se dicte.

En consecuencia, no originará derechos ni expectativas de derechos a favor de los interesados o afectados por la información suministrada, ni interrumpirá la prescripción de los derechos u obligaciones a que pueden referirse los procedimientos para los que se obtuvo la citada información.

UNDÉCIMA.- Compromiso de no exigir la remisión de la información por sistemas tradicionales ni su aportación individual al ciudadano.

1.- Las entidades suscribientes del presente convenio marco se abstendrán de exigir la remisión de información necesaria para el desarrollo de sus funciones por sistemas tradicionales, en la medida en que puedan disponer de dicha información a través de los cauces ya formalizados e incorporados al

edo eskuratzeko beste sistema batzuk daudenean, aldean artean formalizatuak egon ez arren, datuen erantzulea den entitateak egoitza elektronikoa eskuragarri jarrita eskaini dielako gainerako herri administrazioei, erabil ditzaten.

2.- Egoera berean, esparru hitzarmenaren sinatzaileek uko egingo diote interesdun diren pertsona edo entitateei ziurtagiriak edo halako agiriak aurkez ditzatela eskatzeari, berez, administrazio emaileak igorri beharrekoak direlako; eta hein horretan, dagokion informazio eskaera zuzen-zuzenean honi egiteko konpromisoa hartzen dute.

3.- Horren ondorioetarako, entitate hartzaileak bere gain hartutako konpromisoa betetzeko neurri egokiak hartuko ditu berak tramitatzen dituen eta informazioa beharrezkoa duten administrazio prozeduretan, eta neurrian artean egongo da interesdunen baimena lortzea alde aurretik eta berariaz adierazia, bete beharreko araudiak hori agintzen badu.

HAMABIGARRENA.- Zerga informaziorako sarbideen kontrola eta segurtasuna.

1.- Zerga informaziorako sarbideen kontrola eta segurtasuna Elkarreragingarritasuneko eta Segurtasuneko Eskema Nazionalan ezarritakoaren arabera eraenduko da, bai eta Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako segurtasun dokumentuetan ezarritakoaren arabera ere.

2.- Informazio lagapen jakin baten eskaera egitean, hartzaileak emaileari jakinaraziko dio zein den erabiltzaileen kudeaketaz eta informazio horretarako sarbideen kontrol eta segurtasunaz arduratzen den organoa. Organo horri esleitutako zereginak honako hauek dira, besteak beste:

convenio marco suscrito, o a través de otros sistemas de obtención que, aun no habiéndose formalizado entre las partes, hayan sido ofertados mediante su puesta a disposición en la sede electrónica por la entidad responsable de los datos a las administraciones públicas para su utilización.

2.- En los mismos supuestos, las entidades suscribientes del presente convenio marco se abstendrán de exigir a las personas o entidades interesadas que aporten certificaciones o documentos similares que corresponda expedir a la administración cedente, comprometiéndose a formular directamente a ésta la correspondiente solicitud de información.

3.- A tales efectos, respecto de los procedimientos administrativos que tramite y en los que se requiera información, la entidad cesionaria adoptará las medidas oportunas para dar cumplimiento al compromiso adquirido, entre las que se incluirá recabar el consentimiento previo y expreso de las personas interesadas en los casos en que sea exigible por la normativa de aplicación.

DUODÉCIMA.- Control y seguridad de los accesos a la información tributaria.

1.- El control y seguridad de los accesos a la información tributaria se regirá por lo dispuesto en los Esquemas Nacionales de Interoperabilidad y Seguridad así como en los documentos de seguridad aprobados por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

2.- En el momento de solicitar un suministro concreto, el cesionario comunicará al cedente el órgano responsable de la gestión de usuarios y del control y seguridad de accesos respecto al mismo. A dicho órgano le corresponderá, entre otras, las siguientes funciones:



ANOETAKO
UDALA

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de
Hacienda y Finanzas

- a) Informazio lagapen horrekin zerikusia duten eskaerak tramitatzea.
 - b) Emandako informazioaren erabiltzaileen altak eta bajak eskatzea.
 - c) Emandako datuen izaera gordea zainduko dela ziurtatzea, eta horretarako beharrezkoak diren neurriak hartzen direla.
 - d) Erabiltzaile baimenduek beren baimenaren eta eskuratutako informazioaren erabilera zuzena egiten dutela ziurtatzea, eta ukitutako pertsonak alde aurretik bere onarpena eman duela ziurtatzea, onarpen hori bere datuetara sarbidea izateko ezinbestekoa bada.
 - e) Oro har, herri administrazio hartzailea esparru hitzarmena betetzen ari dela egiaztatu eta zaintzea, baita datu pertsonalen babeserako bete beharrezkoak diren gainerako xedapenak betetzen direla ere, eta hala ez balitz, bete ditzala eskatzea. Alde horretatik, gorabeheraren bat edo irregulartasunen bat dagoela jakingo balu, horren berri emango dio emaileari.
- a) Tramitar las solicitudes relacionadas con dicho suministro.
 - b) Solicitar y/o gestionar las altas y bajas de los usuarios de la información cedida.
 - c) Asegurarse de que se preserva el carácter reservado de los datos suministrados, y que se adoptan las medidas de seguridad necesarias al respecto.
 - d) Asegurarse de que los usuarios autorizados hacen un uso adecuado de su autorización y de la información accedida, y de que existe el previo consentimiento del interesado cuando el mismo sea imprescindible para acceder a sus datos.
 - e) En general, verificar y velar por la aplicación del presente convenio marco en el ámbito de la administración pública cesionaria, y el cumplimiento de todas sus cláusulas, así como de las demás disposiciones aplicables en materia de protección de datos de carácter personal, instando, en su caso, a dicha aplicación o cumplimiento. En este sentido, dará cuenta al cedente de todas las incidencias e irregularidades de que tenga conocimiento.

3.- Esparru hitzarmenaren babespean emandako informazioari dagokionez, sarbide, zaintza eta erabileraren gaineko honako kontrol hauek ezartzen dira:

3.1. Barne kontrola, informazioaren hartzailea den erakundearen eskutik.

Esparru hitzarmen hau izenpetzen duten administrazioek kontrolak egingo dituzte, ikusteko jasotako datu horien gainean zernolako zaintza eta erabilera egiten duten agintariek, funtzionarioek, edo horien mendeko gainerako langileek.

3.2. Kanpoko kontrola, emandako informazioaren erantzule den enterearen aldetik.

3.- Se establecen los siguientes controles sobre los accesos, la custodia y la utilización de la información suministrada al amparo de este convenio marco:

3.1. Control interno por parte del ente cesionario de la información.

Las administraciones que suscriben el presente convenio marco realizarán controles sobre la custodia y utilización que de los datos recibidos realicen las autoridades, funcionarios o resto de personal dependientes de las mismas.

3.2. Control externo por el ente responsable de la información cedida.

Aurretik xedatutakoaren galerarik gabe, honako esparru hitzarmena izenpetzen duten administrazioek aukera izango dute beste egiaztapen sistema osagarriren bat ezartzeko, eta horren ondorioetarako, administrazio bakoitzeko segurtasun arduradunak beste administrazioiko kideari eskatu ahal izango dio gertatutako gorabeheri buruz egokitzen jotzen duen informazioa. Fitxategiaren erantzulea den administrazioak aldeztu aurretik ere egin lezake kontrola, elkarren arteko lankidetzak oztokatuko ez duten baliabide elektronikoak erabilita.

Esparru hitzarmen hau izenpetzen duten administrazioek onartzen dute beteko dituztela emandako informazioa behar bezala eskuratu eta erabili dela, eta araudiari edo hitzarmenari jarraituz bete beharrekoak diren baldintzak betetzen direla egiaztatze aldera ados litezkeen egiaztapen jarduketak. Informazio lagapenean izandako gorabehera oro, eta eman beharreko edo emandako datuen gaineko kontrol, segurtasun, konfidentzialtasun edo osotasunari eragiten dion neurrian, elkarri jakinarazteko ardura beren gain hartu dute bi aldeek.

Emandako informazioaren zaintzaren edo erabileraren gaineko zalantzak sortzen badira, informazioaren erantzulea den administrazioak aukera izango du hartzaileari eskatzeko egin ditzala beharrezkotzat jotako egiaztapenak edo har ditzala neurriak. Halako zalantzak agertzen badira informazioa bera eman aurretik, lagapena bertan behera uzteko aukera egongo da, zalantzak erabat argitu edo bidezkoak diren neurriak hartu bitartean.

4.- Baldin eta antzematen bada informazioa jasotzen duen administrazioak esparru hitzarmen honen bidez baimendutako sarbideak ez dituela erabiltzen, horiek eten ahal izango ditu, esparru- hitzarmen honen eta bere eranskinen indarrari eragin gabe. Ez erabiltzeagatik etendako sarbideak berreskuratuko badira, organo arduradunak

Sin perjuicio de lo dispuesto anteriormente, las administraciones que suscriben el presente convenio marco podrán establecer cualquier sistema de comprobación accesorio, a cuyo efecto el responsable de seguridad de cada administración podrá solicitar de su homólogo en la otra administración la información que estime pertinente relativa a las incidencias producidas. El control por parte de la administración responsable del fichero podrá tener lugar con carácter previo, a través de medios electrónicos que no obstaculicen la colaboración mutua.

Las administraciones que suscriben el presente convenio marco aceptan someterse a las actuaciones de comprobación que puedan acordar, al objeto de verificar la adecuada obtención y utilización de la información cedida y de las condiciones normativas o convencionales que resultan de aplicación. Ambas partes se comprometen a comunicarse mutuamente todas las incidencias que se produzcan en el suministro de información y que afecten al control, seguridad, confidencialidad e integridad de los datos a suministrar o suministrados.

Cuando se planteen dudas sobre la custodia o la utilización de la información cedida, la administración responsable de la información podrá dirigirse a la cesionaria para que realice las comprobaciones y adopte las medidas que estime pertinentes. Si las dudas tienen carácter previo al suministro de la información, éste podrá suspenderse hasta que queden completamente aclaradas o se adopten las medidas que resulten procedentes.

4.- En el supuesto en que se detecte que la administración cesionaria no hace uso de los accesos otorgados en virtud de este convenio marco, la administración cedente podrá suspender los mismos, sin perjuicio de la vigencia del convenio marco y de sus Anexos. Para recuperar los accesos suspendidos por falta de uso, será necesario que el órgano

berariaz eskatu beharko du.

HAMAHIRUGARRENA.- Datuak isilpean gorde beharra.

Agintariek, funtzionarioek eta gainerako langileek erabat isilpean gorde behar dituzte esparru hitzarmen hau dela bide eskuratzen dituzten datu eta informazio guztiak. Betebehar hori urratzeak dagozkion erantzukizun penal, administratibo eta zibilak sortuko ditu, bai eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziari edo Datuak Babesteko Euskal Bulegoari (otsailaren 25eko 2/2004 Legeak sortua) dagozkion eskumenen erabileraren mende geratzea ere.

Lagapen hartzaileak konpromisoa hartzen du dagozkion diziplina neurriak hartzeko, baldin eta datuak isilpean gordetzeko betebehar hau urratu dela jakinarazi badiote agintariek, funtzionarioek edo langile kontratatuek.

Entitate lagapen hartzaileak, ez badago kontrako legezko agindurik, datuak ezabatu beharko ditu jadanik ez badira beharrezkoak edo garrantzitsuak horiek biltzea eragin zuen helburua betetzeko.

Zerga informazioa atzitzeko xedez lagapen hartzailearen eskura jarritako autentifikazio mekanismoak (erabiltzailearen identifikadoreak eta gakoak) pertsonalak eta besterenezinak dira, eta horietara esleitutako erabiltzaileak berorien erabileraren erantzuleak izango dira, baita berorien konfidentzialtasunaren eta babesaren erantzuleak ere.

HAMALAUGARRENA.- Finantzaketa.

Esparru hitzarmen honetan aurreikusitako jarduketak ez dute kosturik sortuko, eta ez dute inolako kontraprestazio finantzariarik sortuko

responsable realice una petición al efecto.

DECIMOTERCERA.- Obligación de sigilo.

Cuanto autoridades, funcionarios y resto de personal tengan conocimiento de los datos o información suministrados en virtud de este convenio marco estarán obligados al más estricto y completo sigilo respecto de ellos. La violación de esta obligación implicará incurrir en las responsabilidades penales, administrativas y civiles que resulten procedentes, así como el sometimiento al ejercicio de las competencias que corresponden a la Agencia Española de Protección de Datos o a la Agencia Vasca de Protección de Datos (creada por Ley 2/2004, de 25 de febrero).

El cesionario se compromete a adoptar las medidas disciplinarias que correspondan siempre que tenga constancia de la infracción de este particular deber de sigilo por parte de sus autoridades, funcionarios o personal contratado.

La Entidad cesionaria deberá, si no hay un precepto legal en contra, borrar los datos cuando hayan dejado de ser necesarios o pertinentes para la finalidad para lo cual fueron solicitados.

Los mecanismos de autenticación que se pongan a disposición del cesionario con el objeto de poder acceder a la información tributaria son personales e intransferibles, y los usuarios a quienes se asignen serán los responsables de la utilización que se haga de los mismos, así como de su confidencialidad y custodia.

DECIMOCUARTA.- Financiación.

Las actuaciones previstas en el presente convenio marco no generarán costes, ni darán lugar a contraprestaciones financieras entre las

alderdi sinatzaileen artean

HAMABOSGARRENA.- Iraupena, aldaketak, etetea eta iraungipena.

1.- Esparru hitzarmen honek sinatzen den egunetik izango ditu ondorioak, eta lau urtez egongo da indarrean. Epe hori bukatu aurreko edozein unetan, akordioaren sinatzaileek adostu ahalko dute hura luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo hitzarmena azkentzea.

2.- Esparru hitzarmenaren aldaketa bi aldean adostasunarekin gauzatuko da; horretarako, esparru hitzarmenaren indarraldian zehar aldaketa gehigarriaren harpidetza taxutu beharko da.

3.- SPAJLren 51. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hauek dira esparru hitzarmena bertan behera uzteko arrazoiak:

- a) Indarraldia amaitu eta indarraldia luzatzea erabaki ez bada.
- b) Aldeek aho batez horrela erabakitzen badute.
- c) Sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzeagatik.
- d) Hitzarmena deusez deklaritzen duen erabaki judizialagatik.
- e) Hitzarmenean edo legean aurreikusitako beste edozein arrazoiengatik.

HAMASEIGARRENA.- Datu pertsonalen tratamendua.

Informazioak interesdunen datu pertsonalak jasotzen baditu, hala lagatzaileak nola lagapen hartzaileak lege hauen arabera tratatuko dituzte datu horiek: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

partes firmantes.

DECIMOQUINTA.- Duración, modificación, suspensión y extinción.

1.- El presente convenio marco entra en vigor en el día de su firma y tendrá una duración de cuatro años. En cualquier momento antes de la finalización de este plazo, las partes podrán acordar su prórroga por un periodo de hasta cuatro años adicionales, o su extinción.

2.- La modificación del convenio marco se realizará por acuerdo de las partes mediante la suscripción de la oportuna adenda de modificación, formalizada durante el periodo de vigencia.

3.- De conformidad con lo establecido en el artículo 51 de la LRJSP, son causas de resolución del convenio marco, las siguientes:

- a) Por el transcurso del plazo de vigencia sin haberse acordado la prórroga del mismo.
- b) Por acuerdo unánime de las partes.
- c) Por el incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por alguno de los firmantes.
- d) Por decisión judicial declaratoria de la nulidad del mismo.
- e) Por cualquier otra causa distinta de las anteriores prevista en el convenio o en las leyes.

DECIMOSEXTA.- Tratamiento de datos personales.

En caso de que la información incorpore datos personales de los interesados, tanto el cedente como el cesionario tratarán los datos de acuerdo al Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 y a la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.

Esparru hitzarmen honetan tratatutako datuak zerga informazio moduan sailkatzen dira.

HAMAZAZPIGARRENA.- Lege araubidea.

Esparru hitzarmen hau administratiboa da, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluaren VI. kapituluko 47. artikulutik 53.era bitartekoetan xedatutakoak arautzen du.

Los datos tratados en este convenio marco tienen la categorización de información tributaria

DECIMOSEPTIMA.- Régimen jurídico.

El presente convenio marco tiene naturaleza administrativa, y se rige por lo dispuesto en los artículos 47 a 53 del Capítulo VI del Título Preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.